

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea jarduera sailkatuaren lizentzia espedientea**

Francisco Javier Marquínez Jiménezek jarduera lizentzia eskatu dio udal honi "Eusko Label" landa oiloen pabiloia jartzeko Nuvilla herrian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestearen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da hamabost egun balio-dunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ezarri nahi den jarduerak nolabait kalte egiten diela uste dutenek egoki jotzen dituzten oharrak aurkeztu ahal izateko udal idazkaritzan, bertan dagoen espedientea aztertu ondoren.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2021eko otsailaren 2a

*Alkate-lehendakaria*

**JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ**